

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 52/2021 Foru Dekretua, azaroaren 23koa. Aldatzea apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretua, arautzen duena Arabako Foru Ogasunean zerga alorreko zenbait izapide eta jardun egiteko emandako borondatezko ordezkariak, eta borondatezko ordezkarien erregistroa sortzen duena

Apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretuak Arabako Foru Ogasunean zerga arloko zenbait izapide eta jardun egiteko emandako borondatezko ordezkariak arautzen eta borondatezko ordezkarien erregistroa sortzen du eta, hartara, aukera ematen die zergapekoei zerga administrazioaren aurrean borondatezko ordezkari baten bitartez jarduteko.

Foru dekretu honek aurreko paragrafoan aipatutako xedapena aldatzen du, borondatezko ordezkariaren azpimaila jakin batzuk aldatzeko.

Aldaketa hori honako arrazoi hauengatik egin da: alde batetik, egoitza elektronikoaren bidez kontabilitate idazpenak elektronikoki emateko ordezkariak gaitzeko azpimaila ezartzeko, fabrikazio zerga berezien xede diren gaien kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramatera behartuta daudenen kasuan; eta, beste aldetik, TicketBAiko betebeharrak borondatezko ordezkari baten bidez materialki betetzeko ordezkariak gaitzeko azpimaila ezartzeko.

Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta xedapen horrekin bete nahi den beharri erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Ez dago xede horretarako beste neurririk, hartzaileen eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago jartzen dizkienik.

Ekimen honen bidez segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta koherentea da estatuko eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Foru dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua arautzen baitu.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Kontsulta Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira. Txosten horien ondorioak ez dira kontuan hartu.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea Arabako Foru Ogasunean zerga arloko zenbait izapide eta jardun egiteko emandako borondatezko ordezkariak arautzen duen eta borondatezko ordezkarien erregistroa sortzen duen apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretua.

Bakarra. Aldatzen da 3. artikuluko 1. apartatuko B) letrako B.4) ordezkariak azpimaila. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“B.4) «2 d) maila»: Ordezkaritza maila honek ordezkariak gaitzen ditu jarraian zerrendatzen diren jarduera guztiak egiteko:

Fakturazio erregistroak bidali eta kontsultatu; era horretan, haiek modu elektronikoan hornitzearen bidez, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eguneratu ahalko dira.

Kontabilitate idazpenen erregistroak bidali eta kontsultatu; era horretan, haiek modu elektronikoa hornitzearen bidez, fabrikazioko zerga berezien xede diren gaien kontabilitatea eraman ahal da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa.

TicketBAI betebeharraren betetze materiala.

Ordezkaritza azpimaila horretarako ez da beharrezkoa izango ordezkariak artikulu honen aurreko letran aipatzen den "Bat maila" izatea.

Zergapekoek gehienez bi ordezkari esleitu ahal izango diete ordezkaritza azpimaila hori.

Ordezkaritza azpimaila horrek ez du zerikusirik artikulu honetan aipatzen diren gainerako ordezkaritza mailekin."

AZKEN XEDAPENA

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA